



OSO GARRANTZITSUA (Ez da Elkargokide izateko eskaerarik tramitatuko, agiri guztiak aurkezten ez badira).

ELKARGOKIDETU AURRETIKAKO BALDINTZA:

Gainerako agiriak aurkeztu aurretik, interesduna ez dagoela zigortua jakinarazten duen **Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiaren Ziurtagiria** eskatu behar da Elkargo honetako idazkaritzan.

Eskaera orria bete, N.A.N.-ren fotokopia atxikitu, lizentziatura amaitu izaneko data ageri den dagokion **Unibertsitateko Ziurtagiria** aurkeztu (Auzitegietan Abokatutzan eta Prokuradore lanetan aritzeko sarbideari buruzko 34/2006-ko urriaren 30eko legeari jarraituz) eta 183.70 €ko **diru-saria ordaindu behar da**

Elkargoak aipatu Ziurtagiria Madriliko Kontseilu Nagusiari eskatuko dio eta 10 eguneko epean jasoko du. Bidaltzen denetik 3 hilabetera iraugiten da ziurtagiria eta, beraz, epe hori pasa ostean elkargokide izaten jarraitu nahi bada, eskaria eta ordainketa berriro egin behar dira.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. Dekano .-ri zuzendutako eskabidea.
2. N.A.N.-ren fotokopia.
3. Elkargokide txartelerako argazkia (Nortasun Agirikoaren tamainakoa).
4. Jaiotza-ziurtagiria. Erregistro Zibilean eskatzen da.
5. Banku-datuak (24 digitu), hurrengo urtetako kuotak helbideratzeko.

6. JARDUNEAN DIRENAK ELKARGOKIDE EGITEKO:

a) Bere kontura:

- Mutualitatea edo Gizarte Segurantza: Abokatzako Mutualitatean alta eman izanaren ziurtagiria (Elkargoko Idazkaritzan) edo Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean alta eman izanaren ziurtagiria (Hasieratik erregimen honetan sartzeko hautua egiten bada, erabakia atzerazinezkoa da).
- Zergak: Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman izanaren Ziurtagiriaren fotokopia (840 inprimakia) eta errolda aitortenean alta eman izanaren fotokopia (036 inprimakia).

b) Besteren kontura:

- Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean elkargokidea alta emanda dagoela egiaztatzen duen dagokion enpresaren ziurtagiria.
- Esklusibitatea: elkargokidea Abokatu modura jarduera osoz kontratatua dagoela egiaztatzen duen dagokion enpresaren ziurtagiria.

7. JARDUNEAN EZ DIRENAK ELKARGOKIDE EGITEKO. Abokatzaren Mutualitatea. Alta ematea borondatezkoa da. Alta eman nahi izanez gero Abokatuen Elkargoko Idazkaritzan

ELKARGOAK ESKURA JARRIKO DITUEN BETE BEHARREKO AGIRIAK (aurreko agiriak aurkeztu ostean)

- Dekano Jn.-ri zuzendutako eskabidea.
- Bateriaezintasun auzietan ez zaudenaren Zinpeko adierazpena.
- Laneko helbidearen eta helbide partikularren inprimakia.
- Bankuko-helbideratzea egiteko inprimakia (IBAN 24 digitu).
- Hizkuntzen ezagupenari buruzko inprimakia. Euskararen ezagutza mailari buruzko galdetegia.
- Abokatuen Batzordean izena emateko orria. Euskara Batzordean izena emateko orria.
- Elkargoaren Webgunean sartzeko eskaera-orria.

ELKARGOKIDEEN ORDAINKETA (elkargokide egiteko unean egingo da eskudirutan)